2. Dado que la generación e intercambio de conocimiento es elemento estratégico de la nueva gobernanza, la Diputación Foral promoverá su deliberación pública y su conocimiento experto en colaboración con las universidades y centros de investigación especializados.

3. La Administración Foral impulsará, también, la innovación pública, tanto en lo referente a servicios a la ciudadanía, esto es, en los procesos de creación y mejora de políticas públicas y servicios de impacto directo de la ciudadanía, como en procesos internos, mediante uso inteligente de la información y los datos, de la tecnología, un mejor uso de las capacidades y una nueva visión de la incorporación del conocimiento colectivo a la gestión pública.

4. En aras a insertar la cultura de la innovación en su seno y generar una organización que incorpore la innovación en su actividad ordinaria, la Diputación Foral abordará la gestión de la misma a través de iniciativas que generen ámbitos de reflexión y de proposición donde las nuevas ideas creativas sean llevadas a la práctica. Esta nueva cultura de la innovación deberá contar con una participación equilibrada de mujeres y hombres y considerará el enfoque de género en sus propuestas.

Artículo 23. *Transformación digital.*

1. La Diputación Foral plasmará en un plan su estrategia de introducción de nuevas tecnologías de la información y de comunicación, que tendrá como objetivos: la simplificación y mejora de la eficacia y eficiencia de la Administración; una gestión inteligente y transparente de la información y datos; y un modelo de relación digital con la ciudadanía que incorpore su visión desde el diseño.

2. La Diputación Foral hará uso de aquellas herramientas de transformación que incorporándolas a sus servicios aporten valor a la ciudadanía, aumenten la eficiencia de la organización y garanticen la interoperabilidad, seguridad y accesibilidad de los servicios y los trámites. Entre ellas destacan:

a) Trámites y servicios:

i. Aplicaciones de tramitación electrónica que ofrezcan tramitación simple, eficaz y eficiente, garantizando su seguridad, autenticidad, legalidad y accesibilidad.

ii. Plataformas de expediente y archivo electrónico asegurando la integridad, autenticidad, seguridad y accesibilidad.

iii. Movilidad: uso de tecnologías que permitan la comunicación con la ciudadanía a través de dispositivos móviles.

iv. Nube (Cloud), plataformas en la nube para facilitar la interacción con la ciudadanía, y ofreciendo espacios para la interacción que sean accesibles y seguros.

- b) Datuak eta informazioa:
 - i. Gauzen interneta (IoT): Foru Administrazioaren ekipo, azpiegitura, bitarteko eta instalazioei lotutako elementu fisikoak sarean konektatzea ahalbidetzen duten teknologiak erabiltzea, balio publikoa ematen duten zerbitzu berriak garatzeko.
 - ii. Datu-baseak, big data edo geolokalizazioa.
 - c) Komunikazioa:
 - i. Sare sozialak, gizartearekiko solas irekia finkatzeko.
 - ii. Multimedia edukiak: eduki dinamikoak, erakargarriak eta erraz ulertzekoak erabiltzea, politika publikoak eta emaitzak modu interaktiboan komunikatzeko.
3. Foru Aldundiak teknologia berrietan eta ingurune digitalan trebatuko ditu enplegatu publikoak, dituzten eginkizunak ingurune digitalera egokitzea ahalbidetzeren. Aldi berean, arrakala digitalaren kontra borrokatzeko jarduketak bultzatuko ditu, herritarren aukera berdintasuna bermatzearen, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna barne harturik.

IV. TITULUA

GOBERNU IREKIA: GARDENTASUNA, DATUAK IREKITZEA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA

I. KAPITULUA. GARDENTASUNA ETA DATUAK IREKITZEA

1. ATALA. Xedapen orokorrak

24. artikulua. Informazio ematearen alde ahalik eta zabalena jokatzeko printzipioa.

Informazio publikoaren eta informazioa eskuratzearen arau orokorra gardentasuna izango da, eta salbuespena, informazioa ukatzea edo mugatzea. Salbuespen guztiak lege mailako xedapen bidez edo oinarritzko eskubideren baten babesaren bidez ezarri behar dira, eta aplikatzerakoan modu murriztailean interpretatu behar dira, dagokion informazioa salbatzearen edo eskuratzearen alde era zabalenean eginez. Horretarako, datu pertsonalen disoziazioa eta informazio partziala eskuratzeko aukera erabiliko dira, betiere, informazioa ematearen alde ahalik eta zabalena jokatzeko printzipioaren mesedetan.

25. artikulua. Informazio publikoa eskatzen duten pertsonen eskubideak eta informazioa eskuratzen duten pertsonen betebeharrak.

1. Informazio publikoa eskatzen duen pertsona ororen eskubideak honakoak dira:

a) Foru arau honek ematen dizkion eskubideei buruzko informazioa jasotzea eta eskubide horien erabilera eraginkor eta zuzenerako aholkua hartzea.

b) Eskatzen duen informazioa jasotzea, foru arau honek ezartzen dituen gehieneko epeen barnean.

c) Eskatutako informazio publikoa aukeratutako forma edo formatuan jasotzea, egindako aukerak eskuragarri ez dagoen formatu bat behar duenean, materialki bideraezina denean edo neurritz gaineko kostua dakarrenean izan ezik; horrelako kasuetan, behar bezala arrazoiturik jakinaraziko zaio.

d) Informazio osoa edo informazioaren parte bat ez emateko arrazoiak zein diren jakitea, informazioa berak eskatutako modu edo formatuan ez emateko arrazoiekin batera.

e) Jasotako informazioa erabiltzea, aurretiazko jakinarazpen zein baimenik gabe, foru arau honetan eta aplikatzeko den gainerako araudian aurreikusitako mugen barnean.

- b) Datos e información:
 - i. Internet de las cosas (IoT): uso de tecnologías que permitan la conexión a la red de elementos físicos asociados a los equipos, las infraestructuras, los recursos y las instalaciones de la Administración Foral para desarrollar nuevos servicios que aporten valor público.
 - ii. Bases de datos, big data o geolocalización.
 - c) Comunicación:
 - i. Redes sociales para establecer un diálogo abierto con la sociedad.
 - ii. Contenidos multimedia: utilización de contenidos dinámicos, atractivos y de fácil comprensión para comunicar de forma interactiva las políticas públicas y los resultados.
3. La Diputación Foral formará a las personas empleadas públicas en nuevas tecnologías y entornos digitales con el fin de favorecer la adaptación de su función a un entorno digital, al tiempo que impulsará actuaciones dirigidas a luchar contra la brecha digital y garantice la igualdad de oportunidades de la ciudadanía, incluida la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres.

TÍTULO IV

GOBIERNO ABIERTO: TRANSPARENCIA, APERTURA DE DATOS Y ACCESO A LA INFORMACIÓN

CAPÍTULO I. TRANSPARENCIA Y APERTURA DE DATOS

SECCIÓN 1.ª Disposiciones generales

Artículo 24. Principio de máxima accesibilidad.

La regla general de la información pública y el acceso a la misma debe ser la transparencia y la excepción, su denegación o limitación. Cualquier excepción ha de venir impuesta por una disposición con rango de ley o por la protección de algún derecho fundamental, e interpretarse en su aplicación de forma restrictiva y más favorable a la divulgación o el acceso a la información de que se trate. A tal efecto, se utilizarán las técnicas de disociación de datos personales y de acceso parcial a la información siempre al servicio del principio de máxima accesibilidad.

Artículo 25. Derechos de las personas solicitantes de información pública y obligaciones de las personas que acceden a la información.

1. Toda persona solicitante de información pública dispone de los siguientes derechos:

a) A ser informada de los derechos que le otorga la presente norma foral y a ser asesorada para un efectivo y correcto ejercicio de ellos.

b) A recibir la información que solicite, dentro de los plazos máximos establecidos por esta norma foral.

c) A recibir la información pública solicitada en la forma o formato elegidos, excepto cuando la opción elegida implique un formato no disponible, sea materialmente inviable o implique un coste desproporcionado, lo que se notificará motivadamente.

d) A conocer los motivos por los cuales no se le facilita la información, total o parcialmente, y también aquellos por los cuales no se le facilita dicha información en la forma o formato solicitados.

e) A utilizar la información recibida, sin comunicación ni autorización previa, dentro de los límites previstos en esta norma foral y en el resto de normativa aplicable.

2. Informazio publikoa eskuratzen duten pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

a) Bere eskubidea fede onaren eta eskubide-abusua galarazteko printzipioen ildotik baliatzea eta, zehazki, informazioa eskuratze horretan zerbitzuen funtzionamenduaren eraginkortasunari ez eragiteko moduan jardutea, eskaerak ahalik eta zehatzen adieraziz.

b) Jasotako informazioa berrerabiltzeari dagokionez legeak ezarritako betebeharrak errespetatzea.

c) Hala dagokionean, kasuan kasuko ebazpenean informazioa eskuratzeari dagokionez aurreikusten diren baldintzak betetzea, informazio hori modalitate jakin batean edo artxibo edo dependetzia publiko jakin batean era presentzialean eskuratu behar denean.

26. artikulua. Informazioa kudeatzeko sistema.

1. Foru Aldundiak bere informazio aktiboen kudeaketa egokia bultzatuko du, aktiboen osotasuna bermatzeko, aktiboen erabilgarritasuna arautzeko eta aktiboen argitaratze irekia ahalbidetzeko, hain zuzen barne efizientzian, prozesuen eragin-kortasunean eta balio publikoaren sorreran lagundu dezaten.

2. Foru Administrazioak informazio unitate bat izendatuko du informazioaren kudeaketa koordinatzeko. Zenbait arloren arteko lan sarea sortuko da, informazioaren kudeaketan arau eta prozedura komunak ezarri eta aplikatzeko, aktiboak analizatzeko sistema komunak sortu eta mantentzeko, eta informazioaren gainean kontrol, segurtasun, eguneratze eta kalitate prozesuak ezartzeko.

27. artikulua. Informazio publikoaren ezaugarriak.

Informazio publikoak ezaugarri hauek ditu:

a) Informazioa, eta batez ere formatu elektronikoa dagoena, kudeatzeko unean, datu edo dokumentu bakoitza bakarria izango da, partekatua, eskuragarria, egituratua eta deskribatua, erabiltzeko mugei buruzko informazioa jasoko du eta, hala dagokionean, geografikoki kokatuta egongo da.

b) Dokumentu edo datu-multzto bakoitza pertsonentzako erabilera libreko eta doako ohiko formatu irekietan argitaratuko da eta, osagarri gisa, erabilera orokorreko beste formatu batzuetan ere.

c) Gai bati berari buruz ematen diren eta erakunde, organo edo departamentu desberdinetatik datozen datuak, ahalbada, formatu berean argitaratuko dira.

d) Informazio publikoa deskribatu eta egituratzeko erabilietako hiztegi, eskema eta metadatuak web orrian argitaratuko dira, pertsonak beren bilaketetan erabili eta informazioa egoki interpretatu ahal izan dezaten.

e) Zenbaki-datu multzoak edukia ustiatzea eragozten duen murriztapenik gabeko moduan argitaratu edo jarriko dira erabilgarri.

f) Datuak eta metadatuak elkarreragingarriak izango dira, aplikatu daitezkeen elkarreragingarritasunari buruzko arau teknikoaren arabera.

g) Datuak zabaltzeko unean iturri primarioak baliatuko dira. Datuak osoak izango dira, eta jaso edo bildu bezain pronto jarriko dira erabilgarri; horretaz gain, informazioa ikusgarriagoa izan dadin bistartze tresna grafikoak erabili ahal izango dira.

h) Oro har, datuak argitaratzeko unean datuak irekitzeari dagokionez nazioarteko gomendioetan jasotako estandarrak erabiliko dira.

i) Datuak sexuen arabera bereizita aurkeztuko dira, baldin eta datu estatistikoak, galdeketenak edo politika publikoek gizon eta emakumeengan duten eragin desberdina ikusarazteko datu garrantzitsuak badira.

2. Las personas que accedan a la información pública estarán sujetas a las siguientes obligaciones:

a) A ejercer su derecho con respeto a los principios de buena fe e interdicción del abuso de derecho y, en particular, ejercer el acceso a la información de tal forma que no se vea afectada la eficacia del funcionamiento de los servicios, concretando las solicitudes de la forma más precisa posible.

b) A respetar las obligaciones establecidas en la legislación en materia de reutilización de la información obtenida.

c) A cumplir, en su caso, las condiciones y requisitos que se prevean para el acceso a la información en la correspondiente resolución, cuando haya de realizarse en una modalidad determinada o presencialmente en un concreto archivo o dependencia pública.

Artículo 26. Sistema de Gestión de la Información.

1. La Diputación Foral impulsará una buena gestión de sus activos de información orientada a garantizar su integridad, regular su disponibilidad y facilitar la publicación abierta de los mismos, de manera que contribuyan a la eficiencia interna, a la eficacia de los procesos y a la generación de valor público.

2. La Administración Foral designará una unidad de información que coordine la gestión de la información. Se creará una red de trabajo de distintas áreas para establecer y aplicar normas y procedimientos comunes en la gestión de la información con el objetivo de generar y mantener sistemas comunes de análisis de los activos, así como establecer procesos de control, seguridad, actualización y calidad de la información.

Artículo 27. Características de la información pública.

Son características de la información pública, las siguientes:

a) La gestión de la información, y especialmente de aquella que se encuentre en formato electrónico se hará de forma que cada dato o documento sea único, compartido, accesible, estructurado, descrito, con información sobre las limitaciones de uso y, en su caso, ubicado geográficamente.

b) Cada documento o conjunto de datos se publicará en formatos comunes, abiertos, de uso libre y gratuito para las personas y, adicionalmente, en otros formatos de uso generalizados.

c) Los datos que se ofrezcan sobre una misma materia y que provengan de distintas instituciones, órganos o departamentos se publicarán, siempre que sea posible, en el mismo formato.

d) Los vocabularios, esquemas y metadatos usados para describir y estructurar la información pública se publicarán en la página web para que las personas puedan utilizarlos en sus búsquedas e interpretar correctamente la información.

e) Los conjuntos de datos numéricos se publicarán o se pondrán a disposición de forma que no incluirán restricciones que impidan la explotación de su contenido.

f) Los datos serán interoperables conforme a la norma técnica de interoperabilidad aplicable, incluyendo sus metadatos.

g) La apertura de datos se hará de fuentes primarias y serán completos y puestos a disposición tan rápidamente como son recogidos o reunidos, sin perjuicio de que con el fin de hacer más visible la información, se utilicen herramientas gráficas de visualización.

h) Con carácter general, la publicación de datos se realizará utilizando los estándares de apertura recogidos en recomendaciones internacionales.

i) Los datos se presentarán desagregados por sexo cuando se trate de datos estadísticos, encuestas o aquellos relevantes para la visualización del impacto diferenciado de las políticas públicas en hombres y mujeres.

2. ATALA. Jarduera publikoaren gardentasuna

28. artikulua. *Sektore publikoak publizitate aktiboaren arloan dituen betebeharrak.*

1. 2. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan zerrendatutako subjektuek, beren ekimenez eta doan, argitaratu egingo dute 30. artikulutik 35.era bitartekoetan zehazten den informazio publikoa. Informazio hori gutxienezkoa eta nahitaezkoa da. Osterantzean, publizitate arloan araubide zabalagoa aurreikus dezaten beste xedapen espezifiko batzuk ere aplikatu ahal izango dira.

2. Edonola ere, 30. artikulutik 35.era bitarteko artikuluetan zehazten den informazioak bereziki babestutako datuak dituean, argitaratu ahal izango da bakarrik aurrez datu horiek anonimizatuko badira.

29. artikulua. *Informazio publikoaren ondorio juridikoak.*

Titulu honetan oinarrituta zabaltzen edo ematen den informazio publikoaren ondorio juridiko bakarra da foru arau honen eta aplikatzeko den gainerako araudiaren berri emateko eta informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko betebeharrak betetzea.

30. artikulua. *Erakundeari eta beronen antolaketa, plan-gintza eta ondareari buruzko informazioa.*

1. Erakundeari eta antolamenduari buruzko ondorengo informazioa argitaratuko dute 2. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan zerrendatutako subjektuek:

- a) Ditutzen eginkizunak.
- b) Aplikatzeko zaien araudia.
- c) Duten antolaketa-egitura, organo bakoitzeko arduradunak identifikatzen dituen eta bakoitzaren profil eta ibilbide profesionala deskribatzen duen organigrama gaurkotu batez.
- d) Organo horien egoitza, jendea hartzeko ordutegia eta harremanetarako bitartekoak.
- e) Langile kopurua departamentua eta zuzendaritzak berezitua: urteko guztirako lansariak, ordainsari-tarte, ordainsari-maila eta lanpostuen arabera; langile finkoen eta aldi baterako langileen ehunekoak; erantzukizuneko postuetan dagoen emakume ehunekoak; esleitutako hizkuntza eskakizunak eta eskakizun egiaztatuen ehunekoak; eta izendapen eta kargu gabetze libreko konfiantzako, aholkularitzako edo laguntzako kargu kopurua. Informazio hori sexuen arabera berezita aurkeztuko da eta hiru hilean behin eguneratuko da, eta, betiere, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharrekoak diren lanpostuak aldatzen, kentzen edo sortzen diren bakoitzean.
- f) Lan eskaintza publikoa edo langile beharrak eta hautapen prozesuak kudeatzeko antzeko beste tresnaren bat.
- g) Sindikatu-ordezkaritzako organoetan dauden erakunde sindikalak, sindikatu bakoitzak duen ordezkaritza kopurua, urtean erabilitako ordu kopurua eta horiei loturik liberazioek eragiten dituzten kostuak.
- h) Funtzionario, langile eta sindikatuekiko hitzarmen, akordio eta itunak.
- i) Langileei eragiten dieten bateragarritasuna baimentze-ari edo onartze-ari buruzko ebazpenak.
- j) Erasota laga nahi duten beste edozein datu.

2. Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko entitateek argitaratu egingo dituzte, halaber:

a) Helburu zehatzak eta horiek lortzeko ekintzak, bitartekoak eta denbora aurreikusiak finkatzen diren urteko eta urte antzeko plan eta programak, foru arau honen 15. artikuluan ezarritakoak. Horien betetze maila eta lortutako emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko dira, 16. artikuluko neurketa eta balorazio adierazleekin batera. Baita egindako partaide-

SECCIÓN 2.ª Transparencia de la actividad pública

Artículo 28. *Obligaciones en materia de publicidad activa.*

1. Los sujetos enumerados en los números 1 y 2 del artículo 2 publicarán, a iniciativa propia y de manera gratuita, la información pública cuyo contenido se detalla en los artículos 30 a 35. Dicha información tiene carácter de mínimo y obligatorio, sin perjuicio de la aplicación de otras disposiciones específicas que prevean un régimen más amplio en materia de publicidad.

2. En todo caso, la información pública a la que se refieren los artículos 30 a 35 que contuviera datos especialmente protegidos solo se publicará previa anonimización de los mismos.

Artículo 29. *Efectos jurídicos de la información pública.*

La información pública divulgada o suministrada con base al presente título tendrá los únicos efectos jurídicos de cumplir con las obligaciones de información de esta norma foral y resto de normativa aplicable y de hacer efectivo el derecho de acceso a la información.

Artículo 30. *Información sobre la institución, su organización, planificación y patrimonio.*

1. Los sujetos enumerados en los números 1 y 2 del artículo 2 publicarán la siguiente información institucional y organizativa:

- a) Las funciones que desarrollan.
- b) La normativa que les es de aplicación.
- c) Su estructura organizativa, con un organigrama actualizado que identifique a las personas responsables de los diferentes órganos y describa su perfil y trayectoria profesionales.
- d) La sede de dichos órganos, horario de atención al público y medios de contacto.
- e) El número de personas empleadas por departamento y dirección; retribuciones anuales totales por tramos, niveles y puestos de trabajo; porcentaje de personal fijo y de personal temporal; porcentaje de mujeres en puestos de responsabilidad; perfiles lingüísticos asignados y porcentaje de acreditados; y número de personal cargo de confianza, asesoramiento o asistencia de libre nombramiento y cese. Esta información se presentará desagregada por sexo y será actualizada trimestralmente y, en todo caso, cuando se produzca modificación, supresión o creación de puestos y plazas objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
- f) La oferta pública de empleo u otro instrumento similar de gestión de las necesidades de personal y los procesos de selección.
- g) Las organizaciones sindicales incluidas en los órganos de representación sindical, el número de personas representantes de cada organización sindical a la que pertenezcan, y el cómputo anual de horas empleadas y los costes asociados que generan las liberaciones.
- h) Los convenios, acuerdos y pactos de naturaleza funcional, laboral y sindical.
- i) Las resoluciones de autorización o reconocimiento de compatibilidad que afecten al personal.
- j) Cualesquiera otros datos que dichas personas deseen hacer constar.

2. La Diputación Foral y las entidades que integran el sector público publicarán, además:

a) Los planes y programas anuales y plurianuales en los que se fijen objetivos concretos, y las acciones, medios y tiempo previsto para su consecución, contemplados en el artículo 15 de la presente norma foral. El grado de cumplimiento de los planes y programas y los resultados obtenidos deberán ser objeto de evaluación y publicación periódica, junto con los indicadores

tza prozesuak eta horietan lortutako emaitzak ere, partaidetzari buruzko foru araudian xedatutakoaren arabera.

b) Erakundeek egindako publizitate eta komunikazio kanpainak, horien gastuak, esleipendunak eta betetze epea adierazita. Horietako bakoitzaren euskarria, hedabidea eta gastuaren zehetasunak argitaratuko dira.

3. Foru Aldundiak beste zenbait informazio ere argitaratuko ditu, hala nola:

a) Jabetzan dauzkan edo berak eskubide errealean bat duen higiezin zerrenda. Horretan adierazi egingo du higiezin horiei zer erabilera ematen zaien edo zer zerbitzuek erabiltzen dituen, eta zer departamentu edo entitateari atxiki edo zer erakunderi laga zaizkion. Horretaz gain, ibilgailuei buruzko informazioa eta erakundeak bere titulartasunekoak dituen kultur ondasunen zerrenda argitaratuko dira.

b) Foru Aldundiak partaidetza duen erakunde publiko eta pribatuen oinarriko datuen zerrenda, horien sorrerari buruzko akordioak, partaidetza motaren zehaztapena eta kasuan kasuko web orrialdeetarako esteka.

c) Kontsulta eta gizarte partaidetzarako organoak, horien jarduerak eta hartutako akordioak ere barne.

d) Interes Taldeen Erregistroa.

31. artikulua. Foru kargu publikoei buruzko informazioa.

1. 4/2011 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoaren eremuan jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa arautzekoak, bere aplikazio esparruan hartzen dituen pertsonen dagokienez, ondoko informazioa argitaratuko da, gutxienez:

a) Pertsona horien identifikazioa eta profil eta ibilbide profesionala.

b) Urtean jasotzen dituzten soldatak edo era guztietako lansariak.

c) Beren kargua dela eta beste organo eta erakunde batzuetan dituzten karguak edo ordezkariak, eta baita bestelako kargu publikoak ere, halakorik baldin badute.

d) Egin beharreko jardueren bateragarritasunari buruzko organo eskudunak emandako ebazpenak.

e) abenduaren 19ko 4/2011 Foru Arauaren 8. artikuluan indarrez Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu behar diren ondasun eta interes aitortzei buruzko datuak; eta 15. artikuluan indarrez Gipuzkoako Batzar Nagusietara igortzen den sei hilean behingo informazioa, jasotako aitortze kopuru eta motei, aitortze betebeharrak bete ez duen kargudun kopuruari eta horien identifikazioari buruzkoa.

f) Foru gobernuak osatzen dutenen eta goi kargudunen erakunde jardueraren agendak, kargu horietan dauden bitartean, gutxienez, publiko egongo direnak. Agenda alde aurretik publiko egiterik ez dagoen kasuan, ondoren argitaratuko da, baldin eta justifikatutako arrazoirik ez badago. Nolanahi ere, gobernu kideen eta goi kargudunen erakunde jardueraren agendetan sartu behar dira, alde aurretik, lobbyekin edo lobbyetako kideekin egiten dituzten bilerak.

g) Egindako bidaia ofizialen zerrenda, horien xedea, destinoa, data, partaideak eta kostua adierazita.

2. Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruzko informazioa, horretan bereziki aipatuta kargudun publikoen jokabide kodeak eta onartutako beste edozein kode; baita sistemaren Berme Organoari eta emandako ebazpenei buruzko informazioa ere. 2. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan jasotzen diren gainerako entitateek ere argitaratuko dituzte zuzentasun sistema betetzeko gauzatutako jarduerak.

de medida y valoración del artículo 16. Se incluirán, también, los procesos participativos realizados y sus resultados conforme a lo contenido en la normativa foral de participación.

b) Las campañas institucionales de publicidad y de comunicación realizadas con indicación del gasto, adjudicatarias, y plazos de ejecución. Se publicará en detalle el soporte, medio de comunicación y el gasto correspondiente a cada uno de ellos.

3. La Diputación Foral publicará, además, la siguiente información:

a) La relación de los bienes inmuebles que sean de su propiedad o sobre los que ostente algún derecho real, con indicación del uso o servicio al que están destinados, y el departamento o ente al que están adscritos, o entidad a la que están cedidos. Se publicará, también, la información relativa al parque móvil, relación de teléfonos móviles corporativos y la relación de bienes culturales de la que es titular la institución.

b) Una relación con los datos básicos de las entidades públicas y privadas en las que tiene participación la Diputación Foral, los acuerdos relativos a su creación, la especificación del tipo de participación y el correspondiente enlace a sus páginas web.

c) Órganos consultivos y de participación social, con inclusión de su actividad y acuerdos que adopte.

d) Registro de Grupos de Interés.

Artículo 31. Información sobre el personal cargo público foral.

1. En relación con las personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Norma Foral 4/2011, de 19 de diciembre, reguladora de los registros de actividades y de bienes y de intereses en el ámbito del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se publicará, como mínimo, la siguiente información:

a) La identificación de tales personas y su perfil y trayectoria profesionales.

b) Los sueldos o retribuciones de cualquier naturaleza que perciban anualmente.

c) Los cargos o representación que ostentan en otros órganos y entidades por su propia condición, así como otro tipo de cargos públicos que, en su caso, ostenten.

d) Las resoluciones dictadas por el órgano competente sobre la compatibilidad de las actividades a realizar.

e) Los datos de las declaraciones de bienes e intereses que son objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en virtud del artículo 8 de la Norma Foral 4/2011, de 19 de diciembre; y la información semestral que se remite a las Juntas Generales de Gipuzkoa en virtud de su artículo 15, sobre el número y tipo de declaraciones recibidas, el número de personal alto cargo que no han cumplido con la obligación de declarar, y su identificación.

f) Las agendas de actividad institucional y de trabajo de quienes conforman el Gobierno Foral y del personal alto cargo, que se mantendrán públicas, como mínimo, durante todo su nombramiento. En el caso en que no pueda hacerse pública la agenda con carácter previo, la publicidad se hará a posteriori, salvo que existan causas justificadas. En todo caso, deberán incluirse en las agendas de actividad institucional de los miembros del Gobierno Foral y del personal alto cargo, con carácter previo, las reuniones que los mismos mantengan con lobistas y lobbies.

g) La relación de viajes oficiales realizados con indicación de su objeto, lugar de destino, fecha, participantes y coste.

2. La Diputación Foral publicará información sobre el Sistema de Integridad Institucional con especial referencia a los códigos de conducta del personal cargo público, y cualesquiera códigos aprobados, junto con la relativa al Órgano de Garantía del sistema y sus resoluciones. El resto de entidades recogidas en los apartados 1 y 2 del artículo 2 darán, así mismo, publicidad a las actuaciones que desplieguen en aplicación del sistema de integridad.

32. artikulua. Garrantzi juridikoa duen informazioa.

Foru Aldundiak, bere eskumenen esparruan, honakoak argitaratuko ditu:

a) Gauzatze bidean diren arauak prestatzeko prozeduren zerrenda eguneratua, horien xedea, tramitazioaren egoera eta izapide egutegi aurreikusia adierazita.

b) Arauak prestatzeko espediente bakoitzari dagokionez eta 6/2005 Foru Arauak, uztailearen 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, xedatutakoarekin bat:

i. Foru arau eta foru dekretuen aurreproiektuak prestatu aurretik egindako kontsulta publikoaren emaitza.

ii. Hasteko agindua edo ebazpena eta txosten erantsia.

iii. Foru arau aurreproiektuen eta izaera orokorreko xedapen proiektuen testua, entzunaldi edo jendaurreko informazioaren tramitera igarotzen direnean; eta tramite hori egiten ez bada, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Lege Aholkularitzako Batzordearen irizpena eskatzen den unean; eta, eskatzen ez bada, onarpenaren unean.

iv. Genero inpaktuari buruzko aurretiazko ebaluazioaren txostena.

v. Aurrekontuaren gaineko eraginari buruzko txostena, hala badagokio.

vi. arraitu den prozedurari buruzko amaierako txostena, horretan jasota tramiteetan zehar hartu diren alegazio, gomen-dio, ohar eta iradokizunen aipamena; eta bereziki aipatuko dira tramite horien edo zuzenketa tekniko edo formazkoen ondorioz arauaren testuan egindako aldaketak.

vii. Lege Aholkularitzako Batzordearen irizpena, horrelakorik eman denean.

viii. Herritarren partaidetzarako prozesuaren memoria eta konklusioak, horrelakorik izan bada.

c) Onartutako araudiaren geroko ebaluazioari dagokionez, indarrean dagoen araudiari jarraikiz Gipuzkoako Batzar Nagusiei bidaltzen zaizkien txostenak.

d) Jarraibideak, instrukzioak, akordioak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.

e) Indarrean dagoen legedi sektorialarekin bat, tramitazioan zehar jendaurreko informazio aldi bat igaro behar duten dokumentuak.

f) Diputatuen Kontseiluak onartutako akordio guztien laburpenak.

g) Kontsulta-organoek emandako nahitaezko txostenak, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegiaren eta Auzitegi Ekonomiko- Administratiboaren ebazpenekin batera.

h) Ondorio publikoak dituzten ebazpen administratibo eta judizialak eta eragiten dieten behin betiko ebazpen judizialak.

i) Prozedura guztien katalogo eguneratua, euskarri fisikoa zein euskarri elektronikoa eskuragarri daudenena, administrazioaren isiltasuna aplikatzeko modua eta jar daitezkeen errekurtsuak ere barne.

j) Urteko araugintza plana.

k) Urteko txosten bat, aurkeztutako administrazio errekurtsu eta administrazioarekiko auzi errekurtsuoi buruzkoa.

Artículo 32. Información de relevancia jurídica.

La Diputación Foral, en el ámbito de sus competencias, publicará:

a) Una relación actualizada de los procedimientos de elaboración de normas que estén en curso, indicando su objeto, estado de tramitación y calendario previsto de trámites.

b) En relación con cada expediente de elaboración de normas y de conformidad con lo señalado en la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

i. Resultado de la consulta pública planteada con carácter previo a la elaboración de anteproyectos de normas forales y decretos forales.

ii. Orden o resolución de inicio y el informe anexo.

iii. El texto de los anteproyectos de norma foral y los proyectos de disposiciones de carácter general en el momento en que se sometan al trámite de audiencia o información pública; y si no se realiza dicho trámite, en el momento en que se solicite el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Territorio Histórico de Gipuzkoa; y, si no se solicita, en el momento de su aprobación.

iv. El informe de evaluación previa del impacto de género.

v. El informe sobre la incidencia presupuestaria, en su caso.

vi. La memoria final sobre el procedimiento seguido, que incluirá la referencia a las alegaciones, recomendaciones, observaciones y sugerencias recibidas en los distintos trámites y la respuesta a las mismas; con especial mención a las modificaciones realizadas en el texto de la norma foral como consecuencia de dichos trámites, o de correcciones técnicas o formales.

vii. El dictamen de la Comisión Jurídica Asesora, cuando se haya emitido.

viii. La memoria y conclusiones del proceso de participación ciudadana, si lo hubiere.

c) En relación con la evaluación posterior de la normativa aprobada, los informes remitidos a las Juntas Generales de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en la normativa foral.

d) Las directrices, instrucciones, acuerdos, circulares o respuestas a consultas planteadas por particulares u otros órganos en la medida en que supongan una interpretación del derecho o tengan efectos jurídicos.

e) Los documentos que, conforme a la legislación sectorial vigente, deban ser sometidos a un periodo de información pública durante su tramitación.

f) Los extractos de todos los acuerdos adoptados por el Consejo de Gobierno Foral.

g) Informes emitidos por los órganos consultivos con carácter preceptivo, así como las resoluciones del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales y del Tribunal Económico Administrativo.

h) Las resoluciones administrativas y judiciales de relevancia pública y las resoluciones judiciales definitivas que le afecten.

i) Catálogo actualizado de todos los procedimientos, tanto los que estén disponibles en soporte físico como en soporte electrónico, incluyendo cómo se aplica el silencio administrativo y los recursos que puedan interponerse.

j) Plan normativo anual.

k) Una memoria anual sobre los recursos administrativos y los recursos contencioso- administrativos interpuestos.

33. artikulua. Kontratazio, hitzarmen eta diru-laguntzei buruzko informazioa.

2. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan zerrendatutako subjektuek ondoko informazio hau argitaratu beharko dute:

1. Bere kontratazio jarduerari dagokionez:

a) Sektore publikoko kontratuen oinarriko legedian araututako informazio guztia kontratatzailearen profilean argitaratzeko betebeharra. Gardentasun atariak profil horretara bidaliko du, dagokion lotura ezarriz.

b) Kontratuen lagapenak eta azpikontratazioak, azpikontratatzailea identifikatuta.

c) Amaierako txosten-laburpen ekonomikoa, obra eta zerbitzu emakidako kontratuen esleipen prezioa eta amaierako kostua adierazita, dagozkien aldaketak eta prezio berrikuspenak barne.

d) Sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuen aurrekontu bolumenaren kopuruari eta ehunekoari buruzko datu estatistikoak, ezagutu ahal izateko kontratu modalitate bakoitzean kontratatzen diren ehunekoak eta azken lau urteetan sektore publikoarekin kontratatzen duten enpresetako bakoitzak jasotako ehunekoak.

e) Kontratazio publikoko urteko plana, 180.000 euroko balio zenbatetsitik gorako kontratuenak, zerbitzuen eta horniduren kasuan, edo 2.000.000 eurotik gorakoak, obren eta obra eta zerbitzu emakiden kasuan.

f) Zerbitzuak emateko kontratuetan, enpresa esleipendunak publiko egin beharko ditu ondoko datuak, erabiltzaileek ezagutu ahal izan ditzaten:

i. Kudeatzaileek zerbitzuaren kalitateari, zerbitzua jasotzeari eta zerbitzua emateko baldintzei dagokienez onartu eta bere gain hartutako obligazioak.

ii. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

iii. Kexak edo erreklamazioak egiteko prozedura.

2. Hitzarmenei eta kudeaketa mandatuei dagokionez:

a) Izenpetutako hitzarmenen zerrenda, alderdi sinatzaileak, xedea, iraupen epea, egindako aldaketak, hitzartutako prestazioak eta hitzarmenak betetzeko subjektu obligaziodunak adierazita, hitzartutako obligazio ekonomikoekin batera hala dagokionean.

b) Izenpetutako kudeaketa mandatuen zerrenda, horien xedea, aurrekontua, betebehar ekonomikoen iraupena eta egiten diren azpikontratazioak adierazita, pertsona edo erakunde esleipendunak, esleipenerako segitutako prozedura eta horren zenbatekoa ere jasota.

c) Bitarteko propioei egindako enkarguak argitaratuko dira sektore publikoko kontratuen legediak xedatutakoaren arabera.

3. Diru-laguntzei dagokionez:

a) Emandako diru-laguntza eta laguntzak, horien zenbatekoa, xedea, helburua eta pertsona onuradunak adierazita. Norgehiagoka libreko diru-laguntzetan, ebazpenaren aurretiko txosten teknikoa jendaurrean azalduko da.

b) 1/1987 Legeak, martxoaren 27koak, Lurralde Historikotako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzkoak, 11. artikuluan aipatzen dituen hauteskunde gastuak finantzatzearren alderdi politiko edo hautesle federazio, koalizio edo elkartei emandako diru-laguntzak, emandako zenbatekoari buruzko azalpena emanez artikuluko horretan aurreikusten diren baldintzetan.

c) Diru-laguntza plan estrategikoak eta horietako aldaketak.

Artículo 33. Información sobre contratación, convenios y subvenciones.

Los sujetos enumerados en los números 1 y 2 del artículo 2 deberán publicar la siguiente información:

1. En relación con su actividad de contratación:

a) La obligación de publicar en el perfil de contratante, al que se remitirá el portal de transparencia estableciendo la correspondiente conexión, toda la información regulada en la legislación básica de contratos del sector público.

b) Las cesiones de contratos y las subcontrataciones con identidad del subcontratista.

c) Un informe-resumen final económico con detalle del precio de adjudicación y coste final de los contratos de concesión de obras y servicios, con sus respectivas modificaciones y revisiones de precios incluidas.

d) Los datos estadísticos sobre el número y porcentaje en volumen presupuestario de los contratos adjudicados a través de cada uno de los procedimientos previstos en la legislación de contratos del sector público, de forma que se conozcan los porcentajes que se contratan en cada modalidad contractual y los porcentajes recibidos por cada una de las empresas que contrata con el sector público en los últimos cuatro años.

e) El plan anual de contratación pública de contratos a partir del valor estimado de 180.000 euros en caso de servicios y suministros o de 2.000.000 euros en el de obras y concesión de obras y servicios.

f) En los contratos de concesión de servicios se incorporará la obligación por parte de la empresa adjudicataria de hacer públicos los siguientes datos para facilitar su conocimiento a las personas usuarias:

i. Las condiciones y obligaciones asumidas por los gestores con relación a la calidad, el acceso al servicio y los requisitos de prestación del servicio.

ii. Los derechos y deberes de las personas usuarias.

iii. El procedimiento para formular quejas o reclamaciones.

2. En cuanto a los convenios y encomiendas de gestión:

a) La relación de los convenios suscritos, con mención de las partes firmantes, su objeto, plazo de duración, modificaciones realizadas, prestaciones convenidas y sujetos obligados a su realización y, en su caso, obligaciones económicas convenidas.

b) La relación de las encomiendas de gestión suscritas, con indicación de su objeto, presupuesto, duración, las obligaciones económicas y las subcontrataciones que se realicen con mención de las personas o entidades adjudicatarias, procedimiento seguido para la adjudicación e importe de la misma.

c) Los encargos a medios propios serán publicados conforme a lo recogido en la legislación de contratos del sector público.

3. En cuanto a las subvenciones:

a) Las subvenciones y ayudas concedidas con indicación de su importe, objetivo, finalidad y personas beneficiarias. En las subvenciones concedidas en régimen de libre concurrencia competitiva se hará público el informe técnico previo a la resolución.

b) Las subvenciones concedidas a partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones de electores para la financiación de los gastos electorales a las que se refiere el artículo 11 de la Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones a Juntas Generales de los Territorios Históricos, con una explicación de la cuantía concedida en los términos previstos en dicho artículo.

c) Los planes estratégicos de subvenciones y sus modificaciones.

34. artikulua. Ekonomia, finantza, aurrekontu eta estatistika informazioa.

1. 2. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan zerrendatutako subjektuek jendaurrean azaldu beharko dute ondorio ekonomikoak edo aurrekontu mailakoak dituen ondoko informazioa:

a) Aurrekontuak, aurrekontuko partida nagusiak deskribaturik eta informazio eguneratu eta ulergarria emanez gauzatzeko egoerari eta ekitaldian zehar onartutako aurrekontuko aldaketek buruz, azken hauen gauzatzeko mailari buruzko hiruhileko informazioarekin batera.

b) Eman behar diren urteko kontuak, eta kontu horien gainean kanpo kontrolerako organoek egiten dituzten kontu auditoretzari eta fiskalizazioari buruzko txostenak.

2. Foru Aldundiak beste zenbait informazio ere argitaratuko ditu, hala nola:

2.1. Aurrekontuei buruzko informazioa:

a) Diputatuen Kontseiluak onartutako urteko kontua.

b) Aurrekontu egonkortasunari eta finantza jasangarritasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa.

c) Aurrekontuen genero eraginaren ebaluazioa.

2.2. Gastuei, sarrereri eta ordaintzeki buruzko informazioa:

a) Foru sektore publikoaren finantzaketari buruzko oinarriko informazioa, dauden finantzaketa tresnak adierazita.

b) Zerga sarrerak: zerga itunduei buruzko zerga informazioa, batez ere bide horretatik jasotako zerga sarrereri eta zerga bakoitzaren ehunekoari buruzkoa, azken urteotan sarrerak izandako bilakaerarekin batera.

c) Zerga autonomia.

d) Programa garrantzitsuetako gastuei buruzko informazioa.

e) Gastu publikoa eta inbertsioa, biztanleko.

f) Hornitzaileei ordaintzeko epea eta berankortasunari buruzko txostenak.

g) Zerga itunduen bitarteko udal finantzaketaren bidetik urtean Gipuzkoako udallerrii esleitutako zenbatekoen banakako zerrenda.

h) Gastuaren efizientzia edota eraginkortasun adierazleak.

2.3. Zorpetzeari buruzko informazioa:

